

Hurtzaindegi bat izanda ere, 12 urtera arteko hurrei ere aukera ematen zaie bertan egoteko. Beraz, hainbat tailer egingo lirateke adin guztietako hurrei zuzenduta. Baliteke egun batzuetan haur nagusiagoak egotea, beste batzuetan txikiagoak... informazio hori aurretik izango dugu, eta horren arabera prestatuko ditugu tailer horiek.

Ospitalean bertan gaixorik dauden haurrak eta bertan ingresatuta daudenak, hurtzaindegian dauden hurrekin jolasteko aukera izango dute. horrela aniztasuna eta inklusibitatea bermatzen ditugu. Hurrek beste batzuen egoerak normalizatuz eta horiekin elkartasunean aritzen ikasiko dute.

Gainera, gaixo dauden hurrei hurtzaro duin bat izateko aukera ematen zaio, beste haur batzuekin jolastuz....

Bestalde, Ospitalean dauden pertsona nagusiek hurrekin egoteko aukera emango zaie, tailerrak egiteko, adibidez, ipuinak kontatuz, haiekin jolastuz, esperientziak kontatzen....

Behean eskeiniko ditugun hainbat ekintzen deskribapenak azaltzen dira:

Marrazketa tailerra	Tailer hau helburuaren arabera adin desberdinetara bideratu dezakegu, edota adin ezberdinak nahastu elkarreraginean ikasteko. Adibidez, eskuekin edo tenperekin margozea txikiagoentzat bideratu ahal dugu, baina mural bat egitea eta bertan margozea edozein adineko hurrek egin dezakete.
Ipuin kontaketa	0-3 urte tarteko haurrentzat bideratuko dugu tailer hau, era ezberdinetan, guztion parte hartzea erabiliz. Ipuinak egunerokotasunean guk kontatuko ditugu, baina egun berezi batzuetan ospitaleko agureak etor daitezke istorioak kontatzera, ...
Eskulan tailerrak	Plastilina, buztina, margoak, ... material ezberdinekin ekintza ezberdinak egingo ditugu.
Janari tailerrak	-Sasoiaren arabera txagoetan produktuak ezagutu, batu, janaria egiteko erabili.... -Ogia egiten ikasi, taloak, postreak... eta bazkalorduan jan
Txokoak	Haurren beharren arabera gela txokotan banatu eta espazio ezberdinak sortu.
Psikomotrizitatea	Asteko egun batzuetan psikomotrizitate saioak egingo ditugu.

jolas sinbolikoa	Horiekin batera, jolas sinbolikoa. Nagusiagoak direnek aukeran izango dute beste zerbaitetan aritzera.
Lehen sorospenak edo medikuntzan zentratutako tailerrak	Ospitaleko erizain / medikuen laguntzaz tailerrak banatuko dira haurren garapenerako beharrezkoak direnak. Gurasoei tailer hauetara gerturatzea ahalbidetuko zaie, ordu libreren bat badaukate.
Txangoak	Urteko sasoi ezberdinetan inguruko natura aztertzerako joango gara, elementuak ezagutzeko, ikusteko, elikagaiak batzeko....
Hitzaldiak	Kontziliazioaren gaiari buruzko hitzaldiren bat eman dezakegu, horren inguruko formazio bat jaso ondoren. Hitzaldi hauek gure zerbitzua erabiltzen duten guraso guztientzat izango dira, Horrela, gaiaren garrantziaz kontzientziatuko ditugu.
Janari eta elikadura zerbitzuak	Hamaiketako eta bazkari osasuntsuak eta sasoiaren janariarekin eskeinitako dira, baita orekatuak ere. Guraso batzuk prest egon daitezke bazkari zerbitzua ematen prezioan murrizketaren baten truke.